

...elkarrizketa

**Anibal Ivan Matos**

• JEHOVAREN LEKUKOEN
DEPORTATU ETA BARNERATUEN
EUROPAKO TALDEA •

«Oraindik
ezjakintasuna
dago Lekukoei
buruz»

«Testigantza baten
oroitzapena» erakusketa
ibiltaria igandea arte
Gasteizen egongo da.

■ Zergatik egiten ari za-
rete erakusketa hau?

1995. urtean hasi zuen «Testigantza baten oroitzapena 1933-1945» erakusketak bere ibilbidea, urte horretan bete zirelako 50 urte kontzentrazio esparruetako barneratuen askapenetik. Jehovaren Lekuko hainbat gizon eta emakumeen oroitzapen daude erakusketa honetan, garai hartako hainbat gauzeekin.

■ Zer eskaini dezake era-
kusketa honek gaur
egungo gizarteari?

Erakusketa zein atzo gauean bota genuen dokumentala hainbat gobernu egindako joera baztertzailak ekiditeko ekimenen laguntza izan dute. Azken batean erakusketa honen helburua, aro bat jakinarazteaz gain, ezberdin pentsatzen eta jokatzen duen jendearenganako errespetua bermatzea da.

■ Jehovaren Lekuko inguruan ezjakintasuna gutxitzeko balio du erakusketak?

Historian zehar ezjakintasuna egon da Lekuko inguruan, gaur egun bezala; horregatik erakusketa publiko honek informazioaren subjektu direnak hobeto ezagutarazteko balio du; gainera jendearen erantzuna oso ona da.

Jon Rejado
GASTEIZ

...esaera

«Ongi hazi eta gaizki hezi»

...hizpideak

Zigor epai mugatua
'Lasa-Zabala auzian'

■ *Lasa-Zabala auziko* epaia bost akusaturen kasuan —horien artean Enrique Rodriguez Galindo jenerala eta Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil ohia— zigor epaia izan da, eta hori garrantzitsua da, bahiketa eta krimen bikoitz hartan estatu aparatuen esku hartzea agerian utzi duelako. Baina epaia mugatuzat jo daiteke, ikuspuntu askotatik ikusita: zigortuak talde armatu bateko kide izatearen akusaziotik libre gelditu dira, tortura eta lesio delituak baztertuta gelditu dira, Vera eta Argote absolbitu dituzte... Epaia antzematen zaizkion mugak, neurri handi batean, ikerketan dute jatorria: batetik, ikerketari estatu aparatuen barrutik eta akusatuen ingurutik jarritako oztopotan; bestetik, isiltasunaren legearen on-

torioetan, eta, beste batetik, ikerketari berari jarritako mugetan (ukitu nahi izan ez dituzten hariak). Zigortuak talde armatuko kide izan ez hartzearan, epaimahaiak argudiatu du auzi honetan ez dela frogatu erabili zuten egitura GALen beste ekintza batzuetan erabilia izan zenik. Baina, hain zuzen ere, hori adierazten zuten zantzuek —Gomez Nietoren eskuizkribuak, kasu— baztertu egin dituzte, bai ikerketan eta bai epaiketan. Balorazio politikoen artean, PSOErena harrigarria izan da: gobernu sozialistek GALen ekintzak ez zituztela lagundu ondorioztatu du epaiaren berri izatean. Zuritze nahi horrek ez du zentzurik, dagoeneko PSOEko ministro bat eta estatu idazkari bat Auzitegi Gorenak zigortuta daudelako *Marey kasuan*.

Julio Salinas
erretiratzera doa

■ Erretiratzera doa euskal futboleko pertsonaia garrantzitsuenetako bat: Julio Salinas. Hala esan zuen atzo berak, jokalaria izateari utziko diola denboraldi honen amaieran. Ia hoge urtean egon da Julio Salinas puntaren puntan; Espainiako sei Liga irabazi ditu, baita Europako Kopa bat ere. Askok esaten zuten baldarra dela, nolatan heldu zen hain gora...; itxuragatik beti ere. Baina, bistan da: oker zeuden.

Alerta Iranen

■ Iraultzaren Zaindariai alerta egoeran daude Iranen. Erakunde militar berezi hori Ali Khamenei *ayatola* buruzagi nagusiak mobilizatu du. Khatami presidentearen erreformen kontrakoa da Khamenei, eta bere eabazpenak sektore erreformisten bultzadak kontserbadoreei eragiten dien beldurra agertu du.

Irango kontserbadore eta erreformisten arteko tentsioak gori-gori jarri du herrialde horretako giro politikoa. Izan ere, az-

ken egunotan erreformisten aldeko hedabideak itxi dituzte Iranen, eta herriarrak kalera irten dira protestatzeko.

Irango erregimen islamikoak guztiz baldintzatu du hango oreka politikoa. Gobernu eta Legebiltzara boto libre eta unibertsalez aukeratu dute, eta bertan erreformistak dira nagusi. Hala ere, *ayatolak* eta hark izendatutako Zaindarien Batzordeak botere handiagoa du eta edozein aldaketa oztopa dezake.

...pertsonaiak



AUGUSTO PINOCHET • Diktadore ohiari senadore immunitatea kentzeko prozesua hasi du Txileko Justiziak. Zazpi abokatuk egin dute eskaria, *Heriotzaren* karabanan parte hartzeagatik.



PHILIP NEWELL • Queen, Rolling Stones edo Jethro Tull musika taldeekin lanean aritu izan da soinu teknika-ri modura. Virgin etxeko akzionista ere izandakoa da. Gaur egun Euskal Herrian da musika estudio bat diseinatzen.



GIULIANO AMATO • Italiako Legebiltzarrak bihar baietsiko du Amato-ren Gobernu. Gerra amaitu geroztik 58. Gobernuaren ardura hartuko du. Bere lehen helburua egoera ekonomikoa kudeatzea izango da.

...datua

10.000 etorkin bizi dira pape-rik gabe Hego Euskal Herrian Espainiako Atzerritarren Legea indarrean jarri zenetik. Epea ireki zenetik, 2.079 eskaera egin dituzte etorkinek egoera legezatzeko.

...adierazpena

«Zinema amerikarraren biktima hutsak gara»

Philippe Noiret
Aktorea

ooo seiko urrea

• GAIZKA ARANGUREN •

Madrileko bizitzia

Xiberutarrek «Pari-seko bizitzia» kantatzen zioten bezala, hainbatek «Madrileko bizitzia» abestu behar-ko liokete Sabin Etxetik. Espainiako Kongresuan herenegun izan zen Aznar eta Anasagastiren arteko sasi-eztabaidak biziki argitu zuen egungo egoera.

EAJko kideei kupidarik gabe eraso zien, berriro ere, Espainiako Gobernu-ruak. Eta haren erranak urduritasunez entzun zituzten arren, duintasunez ihardetsi zion EAJko taldeko eledun Iñaki Anasagastik. Egia erran, inoiz irudikatuko ez nuen mailako erantzuna eman zion jeltza-leak Espainiako arduradun politikoa nagusiari. Baina,

eztabaida horretan zehar, bertan ego- tearen aldeko arrazoiak gero eta urriagoak direla antzeman zelakoan nago.

Aznarrek erotik itxi zuen legegintzaldian zehar EAJrekin adostasunak bilatzearan aukera; eta euskal abertzaletasunari aitzin egiteko baliabide guztiak erabiliko dituela azpimarratu zuen. Guztiak, politikoa izan ezik. Hots, azken 42 urteotako errezeta



bera. Belaunaldi belaunaldi ETari militante berriak ukaiteko aukera eman dion erreze- ta. Eta horixe adie- razi zuen Anasa- gastik «poliziabu- rua» ematen zuela erran zionean.

Herenegun, Aznarren hitzek eta PPko diputatuen txaloeak, EAJko bozerama- lea urduritu eta paretaren aurka paratu nahi izan zuten. Espainiaren aitzine- an bere irmotasuna argiki

adierazi nahi izan zuen PPk. Bai eta lortu ere. Dato- zen lau urteotan euskal joera separatistei aitzin egi- teko tresnak, azken 42 urteotakoak izanen dira. Abertzaletasunak, ordea, bide berriak irekitzeko gai den neurrian, urrats sendo- ak egin ditzake Parisek eta Madrilek baldintzatu izan gabe.

Anartean, Jaime Ignacio Del Burgok bere taldea den Coalición Canariako eserle- kuari ihes egin zion PPko- kin fisikoki egoteko. Eta bakarrik utzi zituen, Kana- riarrekin, bere UPNko ber- tze bi kideak. UPN, bere lehendakari Miguel Sanzek erran bezala, beti abertzale- tasunari darion «aldeanis- motik» urrun.